

Wendy Guerra. Kuban bizi den idazle erbesteratua



Amarengandik jaso zuen literaturarekiko zaletasuna Wendy Guerra (La Habana, 1970) idazle eta poeta kubatarrak; gazte-gazterik idatzi zituen lehen lerroak. Kuban bere liburu bat baino ez da argitaratu: *Posar desnuda en la Habana* (2010, Alfaguara) eta erruz da zaila berak idatzitako ezer irlan topatzea. Sakona da atzerrian duen sonaren eta bere aberrian duen anonimotasunaren arteko arrakala. Eszeptizismo bezainbeste ilusioz hitz egiten du etorkizunaz.

“Nahiago dut libururik ez publikatu, politikarekin paktatu baino”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Oier Aranzabal
@oaranzabal

Koherentziari errespetua

“Komunista konbentzituak errespetatzen ditut. Badut lagun komunista porrokatu bat, sekulako gosea pasatzen duena, kargu bat baitu eta ezin baitu merkatu beltzean deus erosi. Sakon errespetatzen dut, eta hitz egiten didanean arretaz entzuten diot. Ideiak pasioz eta koherentziaz defendatzen dituztenek errespetua merezi dute”.

Zure eleberri bat aurkitzen saiatu gara Habanako liburu-dendetan. Baina ez dugu deus aurkitu.

Ez dakit ba. Nik ezin izan dut asma-tu zergatik den hala, akaso zuk lortuko duzu. Ni ez naiz existitzen. Ikusezin egin naute. Baina interesgarria deritzot, umiltasun ariketa baita. Erretiro espirituala egiten nabil nire sorterrian bertan. Nahiago dut libururik ez publikatu, politikarekin paktatu beharra baino. Ez Fidelekin, ez Raúlekin, ez beste ezein gobernurekin.

Zer eman eta kendu dizu iraultzak?

Jaiotzatik iraultza baino ez dagoen herrialde batean, dena eman dizu eta ezer ez era berean. Horixe da erantzuna. Daukazu eta ez daukazu oro mundu horren parte da. Iraultza izan da geure mundua.

Silvio Rodríguez abeslaria lagun duzu, desadostasun politikotik lagun.

Elkar ulertu eta adostu nahi duten la-

gunek eztabaida interesgarri eta argiak izaten dituzte. Denok galdu ditugu lagunak, eztabaidatzeko borondaterik gabe, alde batean ala bestean kokatu izanagatik. Silvio, esaterako, gizon argia da eta nahiz eta ados ez gauden ideia askotan, bat egiten dugu humanitatearen eta bertutearen oinarritzko planoan. Elkar ulertzen dugu.

Kuba aldatzen ari dela irakurtzen da prentsan, bertako jende askok kontrakoa dio ordea.

Gauzak aldatzen ari dira. Jendea aberriaritzen ari da, etxera itzultzen. Nik neuk apartamentu hau erosi eta atondu ahal izan dut lanean irabazi dudana diruarekin. Hori 70eko hamarkadan pentsaezina zatekeen. Gauzak aldatzen ari dira. Jendeak kanpora atera ditzake seme-alabak, baita bidaiatu ere. Kuba aldatzen ari da, bai.

Jende asko joan da, baina beste askok Kuban geratu nahiago izan duzue.

Egiazki hamaika milioi pertsonak egin du Kuban geratzeko hautua. Eta horietarik milioi batzuek, alde egiteko go-goa izan arren, ezin izan dute alde egin.



Bada, aldiz, beste hainbat jende, beren gurasoengana itzuli nahi lukeena, beren etxean mango bat jatera. Irla barruan bere bizitza berregin nahi duen jendea. Denetarik dago, badakizu? Besteren ize-nean hitz egitea konplikatu da.

Disidentetzat duzu zeure burua?

Ez, ez. Tira, txikitatik ez naiz ados izan irakasleekin, ezta familiarekin ere, nire eleberrietan kontatzen dudan legez. Baina ez daukat rol politiko bat, zeharo neofitoa bainaiz politikan. Alde guztietako politikaren biktima sentitu naiz. Eta ez dakit dena aldatzen denean, aldatzen bada, ados egongo ote naizen datorrenarekin. Idazten duen emakume bat naiz, 1940an biziko balitz ere idatziko zukeen emakumea. Hain karga politiko handirik gabeko herri batean jaio izana gustatuko litzaidake, aldiz jaio naizen leku honetan politika alde guztietan arnastu daiteke.

***Domingos de Revolución* eleberriak, ka-
leratu duzun azkenak, zentsurapean bizi
den idazle baten istorioa kontatzen du.
Autofikzio gordina zurea?**

Cleok, protagonistak, nire antz handia du, baina baita Luisa María Loinazena edo

nire amarena ere. Bakarrik eta isolatuta, publikatzeko aukerarik gabe egon diren milaka emakumeren ahotsa du Cleok. Nire liburua, Kuban zentsura editoriala martxan jarri zenetik jaiotako emakume idazle askoren hilotz ezin hobea da.

Amari zenbat zor diozu?

Ama nire barruan dago. Nirekin bizi den pertsona bat da. Biok elkarrekin ikusi gintuztenek oso ondo dakite zertaz ari naizen. Elkarren oso ezberdinak ginen. Bera emakume solidoa eta ni ertzetatik gainezka egiten duen neskata. Hil zenean, apnea ariketa bat egin nuen; arnasa hartu eta igerilekuaren hondoraino egin nuen igeri, gero mantso ur azalera itzultzeko. Amak memoria galdu zuen, ez zen nitaz oroitzen, baina Fidelekin solasean aritzen zen. Fidel telebistan iriteten zenean, bera gogoratzen zuen. Ni, aldiz ez. Ez dut amak zuen engaiamendua, baina telesailaren amaierara arte geratzekoa da nire konpromisoa.

Iraultzaren aldekoa zen ama?

Bai! Oso aldekoa! Fidel ikaragarri mires-ten zuen. Nerabe zela AEBetan ikasteko beka lortu arren, hemen geratzea eraba-

"Idazten duen emakume bat naiz, 1940an biziko balitz ere idatziko zukeen emakumea. Hain karga politiko handirik gabeko herri batean jaio izana gustatuko litzaidake, aldiz jaio naizen leku honetan politika alde guztietan arnastu daiteke".

ki zuen, utopiari segitzeko, gure guraso askok egin bezalaxe. Azkenean desadostasunean jausi zen, maitasunetik. Dezepzionatuta sentitu ziren bere belaunaldiko artista eta intelektual asko. Batzuek alde egin zuten eta ama Kuban geratu zen. Ilusioa galdu zuten, aienatuta, ezin baitzuten ez alde ez aurka egon. Sinisten ez zutena ezin baitzuten babes-tu, eta era berean ezin baitzuten alde egin, ez eta hura abandonatu ere.

Zer esan nahi du Obamaren bisitak Ku- barentzat?

Inoiz iritsi behar ez zen etsaiaren zain geunden kubatarrok. Familia deseginda dagoen herri batera, seme-alabekin, amaginarrebarekin eta emaztearekin etorri izana, ogro larderiatsuaren desmitifikazioa izan da. Inperialismoa iritsi da azken-
nik! Jimmy Carterren bisitarekin ezin da alderatu, aldi bakoitza ezberdina baita. Guri aldi hau bizitzea tokatu zaigu. ■